EZ JOLASTU PALESTINARREN ZAPALKUNTZAREKIN !

1948an palestinarren hondamendia hasi zen Nakba bezala ezagutzen dena. Bertan, Israelgo estatua sortu zen eta palestinarren aurkako jazarpena, bazterketa eta arrazakeriari ekin zitzazion.

-Israelen bizi diren 1,2 milioi palestinarrak 2. mailako biztanleak dira.
-Jerusalemgo biztanleak (200.000) bertatik bota ahal izateko mota guztietako erasoak jasotzen dituzte.
-Zisjordaniako biztanleak (2,6 milioi) Apartheid harresiak sakabanatzen ditu.
-Gazako 1,5 milioi lagunek blokeo eta etengabeko setioa jasan behar dute.

Honegatik Palestinako jendarte zibilak Israelen aurkako BDS (Boycott, Divestment and Sanctions) nazioarteko kanpaina jarri zuen abian 2005ean. Hegoafrikako Apartheid erregimenaren aurka egindako boikot eta zigor kanpaina ez-bortxazkoa eta arrakastatsua eredutzat hartuz, mundu osoan geroz eta pertsona eta erakunde gehiagoren babesa ari da jasotzen, tartean, Desmond Tutu eta Jewish voice for Peace. BDS(Boikot, zigor eta desinbertsioak) kanpainak Israel presionatzea du helburu; Okupazioa, kolonien eta harresiarekin amaitu, Israelen bizi diren palestinarren eskubideak bermatu eta errefuxiatuek itzultzeko duten eskubidea bete arte.

Euskal Herria Palestina Sarea Palestinarekin elkartasuna BDS mugimenduak markatzen duen ildoan jorratu nahi dugunon euskal bilgunea da. Bertatik, Honako kanpainaren berri eman nahi dizuegu:

Jostailuak funtsezkoak dira haurren hezkuntzarako, harremanetarako eta jolaserako. Jostailuak aukeratzeko orduan, garapen kognitibo eta emozionalarekin loturiko irizpideak hartzen dira kontuan, baita balioekin lotutakoak ere; beraz, onartezina da gerra krimenak egiten dituen estatu baten lantegietan eraikitako jostailuak saltzea —Goldstone txostenaren arabera (NBE, 2010), Israelek gerra krimenak egiten ditu—. Palestinarren aurkako zapalkuntzaren bidez,etengabe debekatzen zaie haur palestinarrei haur izatea edo jolas egiteko eskubidea bera. Gazan esate baterako, ezin dituzte frangatik kanpoko jostailurik jaso. Itxuraz hain kaltegabeko diren produktuen bidez, Israelek ordea, dituen harreman komertzialak bere erregimena legitimatzeko eta Nazioarteko Zuzenbidearen zein giza eskubideen aurkako urraketak estaltzeko baliatzen ditu.

Gure jostailu dendetan, 'made in israel' (729 barra kodea) jostailuak non nahi topa daitezke: Imaginarium, Toys 'R' Us edo Afede-n. Beraz dei egiten dizuegu jostailu hauek eros ez ditzazuen bat eginez Euskal Herrian abian dugun Boikot kanpainarekin.

"made in Israel" jostailurik ez !
ISRAELI BOIKOT